

**BERDINTASUNERAKO EMAKUNDE SARIA 2022**  
**PREMIO EMAKUNDE A LA IGUALDAD 2022**

2023-05-02 Vitoria-Gasteiz 02-05-2023

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Eusko Legebiltzar buru andrea, Gasteizko alkate, Bizkaiko Batzar Nagusietako buru, Sailburu, Emakunderen Zuzendari eta Idazkari, Foru Diputatu, zinegotzi, legebiltzarkide, herri agintari eta herri ordezkariok, ON:GIZ Ezberdin Elkarteko Xabier, Silvia, Álvaro, Esther eta kideok, jaun-andreok, arratsalde on!

Eskerrik asko Berdintasunerako sari-emate ekitaldi honetara gonbidatzeagatik.

Jaurlaritza osoaren politika publikoek maxima bat lehenesten dute: pertsonak gure erabakien erdigunean jartzea. Emakumeak, gizonak, herritarrak. Pertsonak ditugu helburu.

Gure helmuga da herritarren, guztien, bizi kalitatea hobetzea. Ditutzen arazoei irtenbideak eskaintzea. Inor atzean utzi gabe. Horretarako aukeratu gintuzten. Horregatik jarri zuten guran euren konfiantza.

Haien kezkak entzun behar ditugu, ondoren, konponbide egokiak bilatzen saiatzeko. Hori da gure xedea: pertsonak ENTZUTEA, gizartearen arazoak behar bezala identifikatzea eta erantzunak eskaintzea.

Hau guztia behar bezala garatzeko komunitate ikuspegi bat izan behar dugu, indibidualismoetatik erabat aldentzen dena.

AUZOLANEAN sinisten dugu eta hori praktikatzeko dugu. Ahalegin kolektiboa egin, emaitza kolektiboak jasotzeko. Denok, GUZTIOK, baikara beharrezko. Denok, GUZTIOK, izan behar dugu protagonista.

Ekitaldian zehar ikusi dugun bezala, gaur Emakunde saria jaso duen ON:GIZ Ezberdin Elkartek pertsonekin egiten du lan, pertsonak erdigunean jarrita. Aldi berean, komunitate izpiritua indartuz.

Elkartearen jardunak erakusten digu gizartean aldaketa handiak egiteko txikitik hasi behar garela, emakume eta gizonen eguneroko bizitzetatik.

Gure eguneroko jarreretatik, harremanetatik. Hauek eraldatuz, aldaketa handiak lortu daitezke gizartean.

Erakundeon ardura da baldintza hoberenak eskaintzea emakume eta gizonen aurrerapauso horiek eman ditzaten. Izan ere, denok dugu zer egin

berdintasunaren aldeko lanean: Erakunde, Elkarte, Enpresa, Ikastetxe, Familia, Komunikabideak...

Hoy reconocemos la labor de ON:GIZ Ezberdin Elkartea.

Trabajáis poniendo a las personas en el centro. Es la manera de conseguir avances en la sociedad: atender y escuchar a las personas, apostar por una visión colectiva.

La igualdad es un reto social y conjunto, también personal. ON:GIZ Ezberdin Elkartea nos recuerda que es un reto compartido. Que nos interpela a todas y a todos. Hombres, mujeres, instituciones, asociaciones, empresas, familias, medios de comunicación... Porque los problemas estructurales y globales solo se pueden solucionar de manera colectiva, trabajando de forma conjunta.

Hoy agradecemos la labor ejemplar de ON:GIZ Ezberdin Elkartea.

Representáis el espíritu del Pacto de País para la Igualdad y vidas libres de violencia machista que está a punto de cumplir un año. Nos animáis a seguir trabajando para hacer realidad los objetivos de la Ley para la Igualdad.

Hoy ponemos en valor la aportación de ON:GIZ Ezberdin Elkartea a la sociedad vasca.

Gracias al compromiso compartido, al trabajo en equipo, Euskadi se sitúa entre los países más punteros del Índice de Igualdad Europeo. Pero tenemos margen de mejora. Debemos seguir avanzando. Esta debe ser una exigencia permanente, colectiva, compartida y, también, personal.

Las políticas de igualdad deben ser transversales en las políticas públicas para avanzar en:

- El empoderamiento de las mujeres;
- La construcción de una sociedad que visibilice, valore y comparta los trabajos de cuidado;
- La implicación de los hombres en la igualdad;
- La educación como instrumento efectivo para el cambio de valores; o
- La construcción de una vida libre de violencia contra las mujeres.

Pertsona asko ari da gure herrian lanean helburu hauek lortzeko. Ahalegin hori, urtero bezala, Emakunde Sariarekin aitortu eta ospatu nahi izan dugu.

Zorionak ON:GIZ Ezberdin Elkartea, eskerrik asko Xabier eta Esther, eta zuokin batera, berdintasunaren alde lan egiten duten pertsona guztiei.

**EMAKUMEAK GORA!**